

13. ALDIZKARIA - 2016ko urtarrilaren 21a

11. ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO, ETA APARKAMENDU ESKLUSIBORAKO EDO GELDITZEKO LEKUA NAHIZ EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMALANAK EGITEKO EREMU PUBLIKOA ERRESERBATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenengo tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Espaloietan barna ibilgailuak sartzera eta aparkamendu eskusiborako nahiz edozein motatako salgaien zama-lanak egiteko edo ibilgailuak gelditzeko eremu publikoa erreserbatzea, horra zergapeko egintza.

ORDAINDU BEHARRA

3. artikulua. Tasa urtarrilaren 1ean sorraraziko da urtero, eta zergaldia urte naturala izanen da, salbu eta erabilera pribatiboa edo erabilera berezia urte hartan hasi edo bukatu egin den kasuetan, orduan zergaldia horren arabera moldatuko baita eta kuota hainbanatuko.

Erabilera edo aprobetxamendua urte naturala hasi eta gero egiten bada, seihileko osoaren tasa ordaindu beharko da.

ORDAINTZERA BEHARTUAK

4. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta ordenantza honetako 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, toki entitatearen jabari publikoa beren alde erabili edo ustiatzen badute edo hari onura ateratzen badiote.

Ibilgailuak espaloietan zehar sartzeko aprobetxamendu bereziko kasuetan, zergadunaren ordezkari izanen dira ibilgailuendako sarrera horien sarbide diren finka eta lokalen jabeak. Halaber, azken hauek zilegi izanen dute dagokien onuradunei kuotak ordainaraztea.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egindako aprobetxamendu bereziei zein erabilera pribatiboei dagozkien tasak horren gaineko Ordenantza Fiskalak edo haiek arautzeko Udal Erabakiek gobernatuko dituzte.

OINARRIAK, TASAK ETA TARIFAK

5. artikulua.

1. Espaloietan barnako pasabideko aprobetxamenduaren kasuan, ordenantza fiskal honen eranskinean ezarritako tarifak aplikatzeko oinarria zehaztuko da erabilitako pasabidearen zabalera, gutxienez 4 metrokoa izan dena, plaza kopurua eta karrikaren kategoria fiskala kontuan hartuta, kasuan kasu.
2. Lekua erreserbatzen denean, erreserbatutako lekuaren luzera –6 metro gutxienez– eta karrikaren kategoria fiskala hartuko dira oinarritako.
6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza fiskal honen eranskinean agertzen dira.

KUDEAKETA ARAUAK

7. artikulua. Lizenziak emateko onesten den arauan xedatuak arautuko du lizentziatarako baimena.
8. artikulua. Ibilgailuen pasabidea espaloietan barna erraztu ahal izateko lanak egin behar direnean eta zoladura nola edo hala mugitu, pasabidea egiteko behar den lizentzia eskatu beharko da une berean eta “Erabilera publikoko lurretan zangak, laginketak eta zuloak irekitzea eta eremu publikoan zorua edo espaloiak kentzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean” ezarri prezio publikoak eta fidantzak ordaindu.

Etxebizitzetako edo lurpeko garajeen kasuan, administrazio kontzesioak eta planeamenduan garajeetako aurreikusitako lurzatiak direnean, ez da beharrezkoa izan fidantzarik zintarriak birjartzeko, kasu hauetan zintarriak apaldua egon behar du eraikuntza zutik dagoen bitartean.

Pasabidea egiteko lizentzia eman ahal izateko pasabide horrek baimena izan beharko du eta tasak ordaindu eta gordailua egin beharko dira.

Indarra duen arautegia edo lizentziaren baldintzak ez betetzeagatik ezarritako zehapenekin lotu daiteke gordailua. Gordailua berreskuratu ahal izateko, Udaltzaingoaren eta kasuan kasuko zerbitzu teknikoaren txostena beharko da, segurtasun eta trafiko arauak eta lizentzia hartzeko baldintzak bete eta lurzorua behar bezala konpondu duela egiaztatzen duena.

9. artikulua. Espaloietan barna ibilgailuak sartu eta lekua erreserbatzeko lizenziak emanik, behar den zentsuan sartuko dira titularrak.

10. artikulua. Seinalatzeko diskoak Udalak emanen ditu IV. epigrafean ezarritako tasa ordaindu ondoan, eta lizentziaren titularraren eginkizuna izan den disko horiek paratu, mantendu, behar izanez gero berriro paratzea, eta erabilera edo aprobetxamendua bukatutakoan kentzea.

11. artikulua. Lizentziaren titularrak erabilera edo aprobetxamendua burutu eta gero zentsuan baja ematera beharturik daude, eta zintarria eta/edo espaloia lehengoratzera. Era berean, seinalatzeko diskoak ere kendu beharko dituzte. Bertzenaz, ulertuko da aprobetxamenduak jarraitzen duela, zintarria eta espaloia lehengoratu eta diskoak kendu arte.

Zintarri eta/edo espaloia lehengoratzeko, kasuan kasuko obra lizentzia eskatu beharko da.

12. artikulua. Ikuskatzaitzako Udal Zerbitzuek eta Udaltzaingoak pasabide lizentziarik gabe aprobetxamendu hori jasotzen duten egoitza edo lekurik ikusten badute horien berri emanen diote Udalari.

Udalak bidezkotzat jotzen dituen neurriak har ditzake eremu publikotik pasatzen ez dela bermatzeko.

2015EKO TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Ibilgailuen pasabidea.

I.1. Turismoendako garaje pribatuak, metro lineal bakoitzeko, urtean:

–1 - 5 ibilgailu: 39,70 euro.

–6 - 10 ibilgailu: 60,60 euro.

–11 - 25 ibilgailu: 100,00 euro.

–26 - 50 ibilgailu: 137,40 euro.

–51 - 75 ibilgailu: 193,60 euro.

–76 - 100 ibilgailu: 238,40 euro.

–101 - 150 ibilgailu: 283,00 euro.

–150 ibilgailutik goiti: 364,45 euro.

I.2. Merkataritzako eta industriako ibilgailuendako garaje pribatuak. I.1. epigrafeko turismoen parekoak izanen dira. Auto-omnibusen kasuan ibilgailu bat 10 toki edo horren zatiki bakoitzeko kalkulatu da, eta kamioi eta nekazaritzako herresta-ibilgailuen kasuan gehieneko karga baimenduko 2 tona metriko edo horren zatiki bakoitzeko.

I.3. Ibilgailuak konpondu, garbitu edo haien olioaldatzeko tailerrak, edozein eratakoak direla ere, hornitegiak eta erakustokiak, metro lineal bakoitzeko, urtean:

–Tarifa: 120,15 euro.

I.4.–Garaje publikoak, metro lineal bakoitzeko, urtean:

–50 ibilgailu bitarte: 137,40 euro.

–51 - 75 ibilgailu: 193,60 euro.

–76 - 100 ibilgailu: 238,40 euro.

–101 - 150 ibilgailu: 283,00 euro.

–150 ibilgailutik goiti: 364,45 euro.

I.5. Orduka aparkatzea ahalbidetzen duten lizentziak, aparkatzeko debekua dakartenak: I.1, I.2, I.3 eta I.4 epigrafeei dagozkien tarifak aplikatuko dira, %44 merkeago.

I.6. Sarbidearen aitzineko espaloian edo gune publikoan aparkatzea murriztu edo debekatzea eskatzen ez duten lizentziak, mugaketa horiek aurretik ezarrita egoteagatik, hamabostaldietarako edo bertze epe batzuetarako, edo ordutegiaren arabera mugaturik badaude ere. I.1, I.2, I.3 eta I.4 epigrafeei dagozkien tarifak aplikatuko dira, %50 merkeago.

I.7. Barañaingo industrialdeko lizentzietan (A, B eta C kaleak), kasuan kasuko aurreko epigrafeetako tarifak aplikatuko dira, %50 murriztuta.

II. epigrafea.–Lekua erreserbatzea.

II.1. Gau eta eguneko erreserba:

–Metro lineal edo horren zatiki bakoitzeko, urtean: 84,50 euro.

II.2. Ordutegi mugatuko erreserba:

–Metro lineal edo horren zatiki bakoitzeko, urtean: 59,55 euro.

Txandakako aparkatzeko debekua duen kale bateko bi espaloietan baimendurik badago erreserba egitea, tarifa finkatuko da luzera handiena duen aldearen neurriak azterturik.

III. epigrafea.–Seinalatzeko diskoak.

III.1. Pasabideak seinaleztatzeko disko trokelatuak, bakoitzeko: 30,55 euro.